

# noaua



## "LAUGARREN TXAPELKETA IZANGO DA NIRETZAT BAINA LASAI SAMAR HARTU DUT ORAINGOAN"

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren atarian, kantari hasteko gogoz dela aitortu digu Asier Azpirozek / 06-07

ARGAZKIA: NOAUA


**Udako  
jaietako irudi  
esanguratsuenak  
batu ditugu** / 09-11

**Ikasturte berriko  
matrikulazio epea  
zabaldu berri dute  
euskaltegieta** / 12-14

**Lehen Iñurri Eguna  
larunbat honetan  
ospatuko da  
Usurbilen** / 18-19

**Ostegun honetan  
Uraren Festa  
ospatuko dute  
Aginagan** / 22





## ALAMANDEGI JATETXEA

- Ogitartekoak, pintxoak, razioak, plater konbinatuak...

*Ondo pasa Santioetan!*

Tel. 943 03 12 75 Urbitarte kalea 1, 20160 Zubieta

# URTINEA

## JANTZI KOLOREZ ZURE ETXEA, BALKOIA ZEIN LORATEGIA!

GARAIKO LOREAK, FRUTARBOLAK,  
LOREONTZIAK, LORE-SORTAK

INFORMATU ZAITEZ

SAN ESTEBAN AUZOA, USURBIL  
TEL: 943 36 22 55

## Praktika onak sustatzen: ontzi arinak

**1**

Poltsa horian atera behar dira

**2**

Poltsa, beti zintzilik: ez utzi lurrean

**3**

Plastikozko poltsa erabiliz gero, beti itxita

**4**

Poltsa horiak udaletxeko bulegoan jaso ditzakezu, doan



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza 2/g (udaletxea)  
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus

# Egurtzegiko pasabide irisgarria zabalik

Abuztu hasieratik zabalik dira Egurtzegiko igogailuak eta haren pareko N634 ertzeko autobus geltoki berria.

1'6 milioi eurotik gorako kostua izan dute eta "gehiegizko aurrekontua" tarteko, bi fase-tan egin behar izan dituzte eremuak irisgarritasun uni-bertsala izatea xede zuten lanok. Europako funtsetatik 700.000 euroko laguntza jaso dute, Udalak 480.000 euroko

ekarpena egingo du hiru urteetan. "Azpiegitura sozial garrantzitsua da herriarentzat", Usurbilgo alkatearen esanetan. Matiako zuzendari orokor Gerardo Amunarrizek Udalaren, Aldundiaren eta Matiaren arteko elkarlana nabarmendu du.



Eskaripeko semaforoak ditu eremuak, autobus geltoki berriak eta 22 metroko desnibela gaindituko duten eskailerak zein igogailu berriak.

## Garbigune mugikorra, Usurbilgo kaxkoan

Irailaren 5etik aurrera, garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Irailaren 12an osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

## Gaztelekua ohiko martxan izango da datorren astean

Irailaren 9tik aurrera zabalik izango da berriz 12 urtetik gorakoentzat, astelehen eta ostegunetan 16:30-19:00 artean eta larunbatetan, 16:00-19:00 artean. Informazio gehiago bertan (San Inazio, 3) jaso ahalko da edo gaztelekuau-surbil@gmail.com helbidera idatzita.

## Bigarren Joan Mari Torrealda beka deialdia martxan

"Euskal kultura azterketagaur", hortxe kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzea xede duen Jakin Fundazioaren eta Usurbilgo Udalaren beka deialdiaren bigarren edizioko gaia. Interesdunek urriaren 21era arteko epea dute proiektuok aurkezteko. Informazio gehiago jakin.eus atarian.

## Tenpora taldearen kontzerturako sarrerak salgai

"Ama" aurkeztuko dute hilaren 29an, 19:00etan Sutegin. Hasiere Oleagak (bateria), Itsaso Etxebestek (baxua), Beñat Barandiaranek (gitarra), Juan-txo Zeberio (teklatuak) eta Elene Arandiak (ahotsa) osatzen dute taldea. Sarrerak eskuragarri dituzue usurbil-kultura.eus plataforman.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**





Euskaltegiko ikasleek irribarretsu amaitu zuten aurreko ikasturtea. ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

# Ikasturte berrirako ikastaro eskaintza zabala

Hauek dira ikasturte berriari begira herriko elkarteek eta eragileek iragarri dituzten ikastaroak. Eskaintza oparoa da.

## Etumeta AEK euskaltegia

Ikasturte berrirako matrikulatzeko epea zabaldu du Etumeta AEK euskaltegiak. Ohi bezala, euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikaskuntza... eskaintza zabala aurten ere.

- Izen-ematea eta argibideak:
- Kale Nagusia, 43ko bulegoan
  - 607 609 379
  - usurbil@aek.eus
  - blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae

## KzGunea

Hilabete amaierara arte, irailaren 30era arte, 09:00-13:00

artean zabalduko dute astelehenetik ostiralera.

Hemen datozten ikastaroen berri:

- Irailak 3-6, 9:00-11:00 "PC, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".
- Urriak 1-10, 18:00-20:00 "Kudeatu zaitez Google aplikazioekin".
- Urriak 11-24, 16:00-18:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".
- Urriak 25-31, 16:00-18:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Informazio gehiago jasotzeko, bulegora jo daiteke edo

telefonoz ala emailaz jarri harremanetan KzGunearekin:

- Kale Nagusia, 37ko egoitzan
- 943 023 684
- tutor.usurbil@kzgunea.net

## 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

Bi ikastaro antolatu ditu irailerako Alkartasuna Usurbilgo baseritarren kooperatibak. Batetik, irailaren 21ean, larunbatez, 11:00etan kooperatiba atarian, etxeko sagar muztioa egiteko tailerra. Astebete geroago, hilaren 28an, 10:30-12:30 artean Aginagako Eliza Zaharra elkargunean, "etxeko sagardoa egiteko ikastaroa eta egurrezko ontzien erabilera sagardogintzan" saioa. Bertan, gainera, etxeko sagardoen dastaketa gidatua iragarri dute.

Hitzordu hauetarako izena aurrez eman ahalko da, doan, Alkartasuna kooperatiban, 943 361 114 telefono zenbakian edo alkartasuna.eus web orrian.

## Orbeldi Dantza Taldea

Ikasturte berrirako ikastarook iragarri dituzte Usurbilgo dantza taldetik:

Helduak: astelehenetan Euskal Dantzak Oinarrizko Taldea; asteazkenetan Plaza Dantza Taldea; astearteetan Euskal Dantza Taldea.

## Haurrak:

- LH1-2: astelehenetan edo asteazkenetan, 16:45-17:45.
- LH3: ostiraletan, 16:45-17:45.
- LH4: asteartetan, 17:45-18:45.
- LH5: asteazkenetan, 17:45-18:45.
- LH6: asteazkenetan, 17:45-18:45.
- DBH: ordutegia zehazteke.
- Non: Oiardo kiroldegia.
- Kuotak: Helduak 90 / Haurrek 70 .
- E-maila: orbeldi.udt@gmail.com
- Izen-ematea (irailaren 15era arte): <https://forms.gle/MN2C4qdmdjRKYHU8> edo Oiardo kiroldegian laster zehaztuko duten egunean.

## Txalaparta Eskola

2024-25 ikasturtera begira, Jexux Artze Kultur Elkarteak antolaturiko ikastaroetan parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute baita Txalaparta Eskolakok.

Bideotatik jaso ahalko dira argibide gehiago edota eman ahalko da izena:

- 695 716 878
- usurbiltxalaparta@gmail.com

## Kantu Taldearen entseguak, astelehenetan Agerialden

Udako etenaldiaren osteko irailaren 28ko kantu-jiraren aurretik (12:00etan Mikel Laboa plazatik) asteleheneroko entsegu saioak berreskuratu dituzte, 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
• PLATER KONBINATUAK  
• BOKATAK • PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Partzi**  
Partzi  
• bazkariak EGUNERO  
• afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361





"Norbaitek ziklo edo espezializazio bat hasteko interesa balu, dei dezala ikastetxera, hutsik dauden plazen inguruko informazioa lortzeko", Usurbilgo Lanbide Eskolatik ohartarazi dutenez. @USURBILLHI

**Yoga eta joskintza tailerra Santuenean**

Auzo elkartetik aditzera eman dutenez, "irailean jarraipena emango zaie aeroyoga eta joskintza tailerrei".

- Joskintza: ostiraletan, 17:00-19:00. Aurkezpena irailaren 27an egingo da eta saioak urriaren 4an hasiko dira. Irakaslea: Mari Carmen 695 774 951.

- Aeroyoga: irailaren 16an hasiko dira saioak. Informazio gehiagorako: Leire 615 715 991.

Oharra: "Santuenea Kultur Elkarteko bazkide ez denak ikasturteko 10 euro ordaindu behar ditu ikastaro hauetakoren batean parte hartzeagatik, bazkide lagun moduan. Honek instalakuntzak erabiltzeko eskubidea emango dio eta ez du bestelako betebeharririk izango bazkide lagunak".

**Einean elkartearen eskaintza**

Lau ikastaro iragarri dituzte Usurbilen, trebakuntza saio horietan guztietan izen-ematea zabaltzearekin batera:

- Yoga: luzaketak, arnasketak, lasaitzea... Irakasleak: Katia (636 71 15 14), Sebas (605 72 28 25).

- Pintura: olioak, akuarela, pastelak... Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

- Eskulanak: teknika ugari ikasteko aukera, gauza politak sortzeko edo berritzeko.

- Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

- Josteko tailerrak: sormena eta joskintza. Irakaslea: Ione (673 64 29 32).

**Usurbilgo Lanbide Eskola**

Ikasturte berria irailaren 4an hasiko duten arren, oraindik

**"IRAILEAN JARRAIPENA EMANGO ZAIE YOGA ETA JOSKINTZA TAILERREI"**

SANTUENEA ELKARTEA

Lanbide Eskolan ikasten hasi nahi duenak honako ohar hau kontuan har dezake. Izan ere, plazarik gabe dagoenak, plaza hutsak ote dauden kontsultatu dezake eta halakorik badago, matrikulazioa bideratu ahalko du irailaren 2tik urriaren 18ra, tarte horretan. "Jakin oraindik matrikulazio ez-ohiko aldia ere zabalik dela, beraz, norbaitek ziklo edo espezializazio bat hasteko interesa balu dei dezala ikastetxera hutsik dauden plazen inguruko informazioa lortzeko", ohartarazi dute Lanbide Eskolatik.

**"PLAZARIK GABE DAGOENAK, PLAZA HUTSAK OTE DAUDEN KONTSULTATU DEZAKE"**

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Zikloez gain, "berriro martxan ditugu Lanbide bidez eskaintzen ditugun langile eta langabetuei zuzenduriko ikastaroak ere. Ikastetxeko zein lanbideko web orrian aurkitu daiteke ikastaro zerrenda baita izen emateko aukera ere".

Informazio gehiagorako:

- 943 364 600
- lhusurbil.eus

**Helduen Heziketa Eskola**

Urtero, irailean ikasturtea hasi aurretik, matrikulatzeko aukera eskaintzen du 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako Helduen Heziketak. Oinarritzko prestakuntza ematen dute; hizkuntzak, oinarritzko informatika, idazmena eta irakurmena, joko matematikoak, natur zientziak, geografia, historia edota historiari lotutako artea...

Horrekin batera, DBH titulua eskuratzeko moduluak, gaztelania atzerritarrentzat. Baita kultur ekintzak ere, bidaia eta kultur irteerak. Edota etorkinentzako programa ere badute: euskara eta gaztelania irakasteko edota baita oinarritzko prestakuntza eskaintzeko ere. "Denok gaudе ikasteko sasoian!", gogorarazten dute. Matrikulaziorako hitzordua aurrez eskatu behar da.

Informazio gehiagorako:

- 943 376 443
- 012734aa@hezkuntza.net.

**Deialdi gehiago jaso ahala, emango ditugu argitara**

Asteotan, deialdi gehiagoren berri izan ahala, eskaintza hau eguneratzen joango gara noaia.eus web orrialdean eta datozen asteetako aldizkari bidez.

**Antxeta**  
 TABERNA  
 egunero irekitzen dugu!  
 eguneko menua · asteburuko menua  
 oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
 paellak enkarguz!  
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**URDAINTZI S.L.**  
 Eraikuntzak  
 urdaintzi@euskalnet.net 649 43 54 75  
 IT-ak egiten dira 943 36 72 64  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**BORDATXO**  
 taberna  
 Pintxo Bereziak  
 943 37 10 42

**ZENDOIA**  
 ENEA taberna  
 Kale Nagusia 35, Usurbil



"Apustua sinbolikoa da. Kuadrilla elkartu eta bazkari eder bat egiteko aitzakia bikaina". NOAUA

# "Poteo garaian sortu zen gure desafioa egiteko ideia"

## GINATZ TOLEDO ETA BEÑAT BEREZIARTUA KIROLARIAK

Oinatz Toledoren eta Beñat Bereziartuaren arteko desafioa jokatu da irailaren 14an. 9:00etan hasita, Getaria-Zarautz artean igeri lehiatuko dira eta segidan 15 kilometro lasterka Aiatik Pagoetako gurutzeraino eta abiapuntura itzulera gero, NOAUA!ri azaldu diotenez.

### Nork jo dio nori erronka?

**Oinatz Toledo:** Gure kasuan, testuinguruak garrantzia berezia du egoera ulertzeko. Poteo garaian sortu zen gure desafioa egiteko ideia. Kuadrillako batek sortu zuen txispa eta ez genuen asko behar izan. Afari baten aurretik egiten den poteo horietako batek traizioa egin zigun. Halako apustuak normalean airean geratzen dira, ez dira aurrera eramaten. Txarrean ere, apustua galduz gero behintzat egin izanaz poztuko gara eta kirol berri batean hilabete batzuk entrenatu izanaren plazeraz.

**Beñat Bereziartua:** Oinatz beti igerian ibili izan da eta ni beti korrika. Elkar askotan xaxatu

izan dugu eta poteoan berotu egin ginen. Serio hartu dugu eta entrenatzen hasi ginen duela hilabete batzuk. Aukera ona izan da guretzat ezagutzen ez dugun kirol batean murgiltzeko. Kuadrillako hirugarren bat arduratu da apustu hau ezerezean gera ez zedin presioa jartzeaz. Askotan proposatu eta atera izan dira kuadrillan halako apustuak, baina ezerezean geratu dira. Gure kasuan, data bat jarri genuen eta forma eman genion ideiarei ia momentuan bertan. Beraz, ez zaigu beste erremediorik geratu entrenatzen hastea baino. Hala, garrantzia hartu zuen desafioaren kontuak gure bizitzetan nahiz eta lagun arteko

apustu bat baino ez den. Serio aritu gara entrenatzen.

### Erronka pertsonala ere izango da zuena ez den kirol horretan horrenbeste lan egin beharra.

**B.B:** Neure kasuan, apustua egin nuenean ez nuen gehiegi pentsatu ondorioetan. Askok pentsatu gabe egindako apustua izan zen niretzat. Ni mendi-lasterketetan ibiltzen naiz eta korrika egitea eguneroko zerbait da niretzat. Igeri, berriz, umetan bai, baina ordutik igeri egin gabe nengo. Igeri hasi nintzen momentuan konturatu nintzen zein zuloan sartu nintzen. Egoskorkeria eta entrenamenduen intentsitatearen ondorioz, asko hobetu dut eta

distantzia hori egiteko adina prestatu naiz. Hala ere, Oinatz korrika gutxiago ibili da igeri ibiltzen delako eta kasua berbera da. Esfortzua egin behar izan du mendian korrika hasteko. Biontzat izan da kirol berri batean hastea, baina geurean ere jarraitu egin behar izan dugu. Orain, iritsiko gara iristen garen bezala. Oso kirol teknikoak dira biak.

### Kuadrillan zer diote? Nor izango da garaile?

**O.T:** Apustuak Beñaten alde daude. Hori uste dut nik. Hoina nola iritsi garen ikusita eta entrenamenduei eskainitako garrantzia eta dedikazioari erreparatuta nik Beñat presatuago ikusten dut.

**B.B:** Hori da berak uste duena, nik ez dut hori horrela ikusten. Nik jendearekin hitz eginda koaren arabera, azaletik begiratuta igeri egiten ikastea zailagoa izan daiteke ikuspuntu teknikotik. Korrika denok egin dugu txikitatik eta ez du horrenbesteko tekniarik eskatzen. Igeriketak zerbait gehiago eskatzen du eta jendeak hori badaki. Beraz, hori ikusita jendeak Oinatz du favoritotzat. Oso gogorra izango da, hori ziur. Kirol bat amaitu eta beste batekin hasi beharra dago, eta kontuan hartu behar da oso kirol ezberdina dela. Aldaketa hori gorputzarentzat arraro samarra da. Ez gaude ohituta, ez gara triatloiak egiten ibiltzen. Trantsizio hori gorputzarentzat oso gogorra da, biontzat izango da oso gogorra. **O.T:** Pare bat proba egin ditugu bi kirolak jarraian entrenatuta eta emaitzetan antzematen da. Horrek ere badu bere xarma, bestela ez litzateke apustua izango. Ez dugu ezer jokatu ere, bazkaritxo bat, ez besterik. Sinbolikoa da eta kuadrilla elkartu eta bazkari eder bat egiteko aitzakia bikaina. Lagun giroko apustua da.

### Eguraldiak ez badu laguntzen ere aurrera egingo duzue?





Oinatz Toledo igerian aritzen da, hori du bere ohiko kirola.



Korrika da Beñat Bereziartuaren gustuko kirol jarduera.

→ **B.B:** Ez, faktore asko hartu ditugu kontuan. Mendian euria ari badu ez du bereziki axola, ez bada ikaragarritzko ekaitza, txismistekin eta hala-koekin. Itsasoan kontua oso bestelakoa da. Segurtasunari garrantzia handia eman diogu. Itsaso txarra izanez gero, atzeratu egingo genuke. Biok argi daukagu hori. Itsasoan piragua bana izango dugu alboan zerbait gertatzen bada ere, baita boia ere, eta mendian bizikletan doan laguna izango dugu alboan; bakoitzak bana. Ez gara joango ero-ero.

#### **Bakoitzak bere kirolean lehiatzeko ohitura duzue?**

**B.B:** Bai, nik mendi lasterketak egiten ditut. Kirol horretan neure burua mugaraino eraman izan dut. Hemen arazoa bigarren kirol hori sartzea da jarraian. Ikusi beharko da nola erantzuten digun gorputzak. Beti jarduten duzun kirolean badakizu non daukazun mugak eta ohitura zaude ia horraino iristen. Apustu honek horretan ere beste zerbait eskatzen du.

**O.T:** Bai, nik ere lehiaketetan parte hartzen dut. Hemen arazoa izango da lehen kirolean dena ematean neurtu beharra dago dena atera, zerbait gero utzi edo erregulazio hori nola egin. Itsasotik ere nahiko zorabiatuta aterako gara olatuen ondorioz. Gorputza nahasi samar geratzen da. Ikusi behar da horri guztiari nola erantzun.

**B.B:** Bai, gorputzaren erantzuna giltzari nagusia izango da. Itsasotik egoera horretan atera ondoren, 15 kilometro egin beharko ditugu korrika. Ez da herrian bueltaxka bat ematea, saio polita izango da. Gutxi gorabehera hiru bat orduko lana izango da, hortik gertu. Bukatu egingo dugu, ikusi beharko da nola.

#### **Zuon kirol ibilbidea gaurdaino nolakoa izan da?**

**O.T:** Nik lehen eskubaloia eta igeriketa egiten nituen. Biak uztartzen nituen gazteagoa nintzenean. Garai hartan ez nuen igeri gehiegi egiten, justukoa bizkarreko arazoei aurre egiteko. Bizkarreko arazoak izaten nituen eta igeri egitea nire terapia zen. Serioago eta trabesiak egiten joan zen urtean hasi nintzen. Pixkanaka kilometroak sartu eta lehiaketetan parte hartzen duela urtebete inguru hasi nintzen. Mendian, berriz, aurtan; desafioa prestatzeko. Asfaltoan zerbait ibiltzen nintzen eta herrian antolatzen dituzten lasterketetan parte hartzen dut normalean, baina mendia ez nuen ezagutzen. Behobia-Donostia proban parte hartu nuen joan zen ur-

### **"HIRU BAT ORDUKO LANA IZANGO DA. HORTIK GERTU IBILIKO DA"**

BEÑAT BEREZIARTUA

tean eta asfaltoan hori prestatzeko hasi nintzen serioago entrenatzen.

**B.B:** Ni futboleko ibiltzeaz nazkatu nintzenean hasi nintzen mendian korrika. Beti gustatu izan zait mendia eta azken urteetan oso modan jarri den kirola denez, lasterketak egiten hasi nintzen. 10 edo 12 urte izango dira saltsa horretan sartuta nabilela. Serioago azken urteetan hasi naiz. Gazteagoa nintzenean parrandak ere pisua zuen nire bizitzan eta uztarketa hori ez zen horren erraza. Azken urteetan parranda gutxiago egiten dut eta horrek aukera eman dit mendian serioago ibiltzeko. Igeri, berriz, apustu hau atera ez balitz oraintxe bertan ez nuke igeri egiten jakingo. Otsaila edo apirillean, apustuaren kontuak forma hartu zuenean, igerilekuan sartu nintzen momentuan ez nintzen gai bi luze egiteko. Hor konTURATU nintzen non sartu nintzen apustuari baiezkoa eman nionean. Entrenamenduen ondorioz, aldaketak segituan etorri dira eta, egia esan, hasierako beldur hori kendu zait. Errespetua diot igeri egiteari ez delako nire kirola, baina

### **"APUSTUAK BEÑATEN ALDE DAUDE. HORI USTE DUT NIK"**

OINATZ TOLEDO

gorputzak badaki zer egin behar duan.

#### **Behin desafioa pasata kirol berri horretan jarraitzeko asmoa duzue?**

**O.T:** Nik ziur aski ez dut jarraituko. Ez ez zaidalako gustatu, baizik eta belaunek asko sufritzen dutelako. Nik belaun batean ebakuntza izan nuen eta ez dut behartu nahi. Muskularki ez bazaude oso landuta eta prestatuta inpaktu handia da. Asfaltoan bai jarraituko dut, baina mendian ez gehiegi. Igeri jarraituko dut eta asfaltoan korrika. Mendian oso gustura nabil desafiorako prestatzen, baina ez da kirol onena belau-nentzat.

**B.B:** Igeri entrenatzen hasi nintzenean ez nuen oso gustuko. Igeri egitea ez dut inoiz bereziki gustuko izan. Denborak aurrera egin ahala igerilekura joateari gustua hartzen ari naiz. Hala ere, gehiago kostatzen zait horretan jartzea korrika egitera joatea baino. Gustua hartu diot eta jarraitzeko asmoa daukat, baina ez oraingo intentsitate berarekin. Korrika eta bizikletan ibili ohi naiz eta aldaketa behar duan momenturako aukera polita iruditzen zait igeri egitea. Lehen ezin nuen aldaketarako kirol modura erabili, baina orain badut aukera hori eta aprobe-txatu nahi dut. Ez naiz ikusten triatloi bat egiten, momentuz behintzat, eta trabesia bat egiten ezta ere. Horretan ikusten dut igeriketa neure bizitzan epe laburrean.

# Erraustegia geratzeko giza katea Kontxan

GuraSOsek isurketa eta sutea izan zela Zubietako erraustegian salatu zuen abuztuaren hasieran. Erraustegia geratzeko giza katea deitu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eragile gehiagorekin, estropaden azken jardunaldia jokatu den irailaren 8rako Donostiako Kontxan.

Erraustegia gelditzeko giza katea deitu dute, urtero moduan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Eguzki, Ekologistak Martxan eta Donostia Bizirik eragileekin batera, Donostiako estropaden bigarren eta azken igande honetarako, irailaren 8rako. Goizeko 11:00etan abiatuko da mobilizazioa udaletxe paretik, Alderdi Ederretik eta handik Kontxako hondartzara joko du, "erraustegia gelditu! Gure lurra, ura, airea kutsatzen ditu", aldarriean.

## Abuztuaren 5ean sute bat izan zela salatu du GuraSOsek

Uda honetan albiste izan da beste behin Zubietako erraustegia. Izan ere, Arkaitzerrekan izandako isurketa handi hartatik bi urte pasatxoan, erraustegitik aipatu errekarara "beste isurketa larria" jazo zela bertan salatu zuen GuraSOS elkarteak abuztuaren hasieran, berriz ere "Oria eta inguruak kutsatuz!".

Oraingo hau, iragan abuztuaren 3an larunbata jazo-takoa, "erraustegiaren plataformaren hondoko drenaren irteeran", izan zela salatu zuen GuraSOsek. Herriar batek gertatutakoa ikusi eta "112 zenbakira deitu zuen, eta ondoren, URA-ko agente bat bertaratu zen eta laginak hartu zituen, ondoren aztertzeko". Horrekin batera, biharamunean, abuztuaren 5ean, "jakin zen sute bat gertatu zela



Arkaitzerrek abuztuaren hasieran zuen itxura.

erraustegiaren instalazioetan, eta GHK-k ez du horren berririk eman, ez aipatutako komunikatuan, ez beste inon. Donostiako suhiltzaileen sare-kontuaren bidez jakin da sutearen berri. GuraSOsek jakin ahal izan duenez, erraustegiaren zuloan piztu zen sutea, eta litekeena da bengala pirotekniko batek eragin izana".

## IGANDE HONETAKO MOBILIZAZIOA EGUERDIKO 11:00ETAN ABIATUKO DA DONOSTIAKO ALDERDI EDERRETIK



GuraSOsek aipaturiko hodia, Arkaitzerrekan. GURASOS

## Argibide eske

GHK-k gezurtatu egin nahi izan zuen GuraSOsek adierazitakoa, "gardentasunarekin eta ingurumen babesarekin duen konpromisoa" berrestearrekin batera. Urte garai honetan gertatu ohi den fenomeno naturalizat jo zuen Kontsurtzioak Arkaitzerrekak duela hilabete zuen itxura, URAk ere hala egiaz-

## "ABUZTUAREN 5EAN JAKIN ZEN SUTEA IZAN ZELA ERRAUSTEGIKO INSTALAKUNTZETAN ETA GHK-K EZ DU BERRI EMAN"

GURASOS

tatu zuela jakinaraztearekin batera. Gertaera honen aurrean, GHK-kerakundeekiko eginiko erabilera "zeken eta propagandistikoa" salatu du GuraSOsek, besteak beste, URA agentziaren sinesgarritasuna auzitan jarri izana ere bai. Izan ere, agentzia honen ikerketa hasi baino ez da egin, nabarmendu dutenez. Horrez gain, "GHK-k bere oharrean adierazten duen bezala "gardentasunarekiko konpromisoa" berresten badu" GuraSOsek dioenez, jazo dena argitu behar du. Elkartearen esanetan, "egitura-akats edo -matxura baten aurrean gaudela (instalazioen estankotasun-galera), gaur egun konpondu ez dena, eta horrek esan nahi du isurketa mota hori posible izateaz gain, litekeena ere badela".

## "Ez du egia esaten"

GuraSOsek helarazitako argazkietan, Arkaitzerrekan hodi gorri bat jarri zutela ikus daiteke, elkarre horren esanetan, "urak edo isuriak desbideratzeko". Datu hau ezkututzea egotzi zion GHK-ri. "Ez du haren funtzioa azaltzen, isurketa baten aurrean gaudela adierazten duen zantzu oso kualifikatua denean". Kontsurtzioak esandakoaren aurrean, bestalde, "GHK-ren prentsa-oharrak ez du egia esaten mehe ferrosoen bidezko kolorazioaren fenomenoak Arkaitzerrekako ibilguan ohikoa eta naturala dela baieztatzen duenean. Fenomeno hori Eskuzaitzetako ibilguan eza gutzen da, baina ez da inoiz Arkaitzerrekan eman, 2022ko uztaileko lixibiatuekin egin-dako ikustaldian izan ezik. Izan ere, errauskailuaren hondoko drainaren bokale-tik gora, argi jaisten eta jaisten ziren, eta ibilgua ez dago gorri-gorri. Arkaitzerrekako arazoa erraustegiaren hondoko drainaren lotura-puntu-an sortzen da, ez ibaian gora".





Soka-dantzarekin herritarrak eta lagunak omendu zituzten dantzariak.



Oilasko biltzaileetan inoizko jende gehien elkartu zen.



Herri bazkariak eta afariak egin zituzten ia egunero herritarrak elkartzeko.



Dantzarako aukera ederra izan zen egunez zein gauez.



Zortzitan Bertso Eskolak gidatu zuen Santio eguneko saioa.



Zubietarrek elkarren aurka neurtu zituzten indarrak.



Gazteak zein helduak Yoko Garbin eta errebotean aritu ziren.



Umeen Egunean gogotik gozatu zuten herriko txikiak.



## URDAIAGAKO JAIK, IRUDITAN



Abuztuan sartzearekin batera heldu zen festa giroa San Estebango plazara.



Euri zaparradak zertxobait atzerarazi zuen Umeen Egunaren hasiera.



Hamaiketako gozo batekin hasi ziren San Estebango jaiak.



Bertakoak nahiz bisitariak, 29 bikote aritu ziren mus txapelketan.



Orbeldi dantza taldeak emanaldi ikusgarria eskaini zuen.



Helduen arteko jolasetan ederki pasa zuten partehartzaileek, eta ikusleek.



Herritarren arteko herri kirol lehiak borobildu zituen aurtengo jaiak.





Belaunaldiarteko colbol txapelketarekin ekin zieten jaiei.



"Hamarru" elektrotxarangarekin auzoko festa giroa herrira hedatu zuten.



Txupinazoa noiz jaurtiko zain, jaien hasierarako auzoko plazan bildutakoak.



Aulki-jokoarena, Atxegaldeko plaza Umeen Egunean.



Giro ederrean abiatu zen mus txapelketa.



Larunbat arratsaldean, txokolate-janaren zain ziren gaztetxoek.



Lehia bizia izan zen toka txapelketan. Hiru jokalaria iaioenak saritu zituzten.



Bertso musikatuen saio arrakastatsuak borobildu zituen jaiek.





Udalek diruz laguntzen dute ikasleek eginiko ahalegina. Argazkian, Buruntzaldeko euskaltegiako langileak.

# "Euskara baliabide garrantzitsua da hemen ondo bizitzeko"

Zabaldu berri dute 2024-25 ikasturterako matrikulazio epea eskualdeko euskaltegien. Euskara ikasi nahiz maila hobetzeko aukera izango da datozen hilabeteotan Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo euskaltegien.

Maila guztietan matrikulatu eta geure bertako hizkuntza ikastea sustatzen segituko dute eskualdeko udalek. Izan ere, diruz laguntzen dute tokiko erakundeok ikasleek eginiko ahalegina.

Ikasturte berrirako euskal-duntzea izango dute helburu, beraz, hainbat eta hainbat herrikidek, tartean, lerrootako bi protagonistek: Danna Ocampok eta Wen Chen Guanglik. Biak ala biak atzerrian jaio arren, Buruntzaldea dute bizileku egun. Aurtengo ikasturterako matrikulatuko direnen artean izango dira. Biek ibilbide ezberdinak izan arren, haien lekukotzek nabarmentzeko moduko ezaugarri eta antzekotasunak dituzte, euskara ikasteko buru-belarri

murgilduak diren prozesuei dagokienean. Biek ala biek dute haientzat berria den hizkuntza hau ezagutu eta erabiltzeko gai izateko ilusio eta motibazioa. "Nire helburua gutxienez B2 eskuratzeko da", adierazi digu Wen Chen Guanglik. Orain arte jorraturiko bidean sakondu nahi du Ocampok ere. "Ikasten segitu nahi dut. Badakit euskara akade-

**EUSKARA IKASI  
ETA EZAGUTZA  
NAHIZ ERABILERA  
MAILA HOBETZEKO  
AUKERA ZABALDU  
BERRI DA**

mikoa eta kalekoa ez dela hizkuntza bera, baina euskara ikasi nahi dut nire ezagutza eta ikasketa gaitasuna heltzen den lekuraino. B2 eskuratu arte, horraino iristea espero dut". Orain arteko bidelagunekin berrekin nahi dio euskalduntze prozesuari. "Nire ikaskideekin batera egoten jarraitzea espero dut, taldean denok batera egoteak moti-

**"KANPOTIK  
ETORTZEN  
GARENONTZAT  
BALIABIDE  
GARRANTZITSUA  
DA EUSKARA"**

batzen baikaitu", gaineratu du Ocampok.

**"Bizitako esperientzia ederra"**  
Euskara ikasi nahiz ezagutza eta erabilera maila hobetu asmo dutenak ere ikasturte berri honetan euskaltegien matrikulatzera gonbidatu dituzte. "Ahalegina egitetik dator emaitza. Egunerokoan egindako saiakera eta ahalegin horretan jarritako maitasunetik, tartetxo bat irakurtzeari eskainiz edo hitzak ikasiz, hori guztia barneratzen zoaz. Bizitako esperientzia ederra da bai irakaslearekin, bai ikaskideekin. Hordago dirulaguntzen arloa ere. A1 urratsean adibidez, %100eko dirulaguntza jaso nuen Usurbilgo Udaletik", nabarmendu du Dannak.

Bera bezala, ikasketa prozesuan murgildu nahi dutenak animatu ditu Guanglik. Gako garrantzitsutzat jo du bizileku duen Urnietako bertako hizkuntzan trebatzea. "Polita eta bizi-esparrua zabaltzen duen hizkuntza da euskara niretzat. Kanpotik gatozenontzat, euskara ikastea baliabide garrantzitsua da hemen ondo bizitzeko", nabarmendu du.

Wen Chen Guangli Txinan jaio zen, Pekinetik ehun bat kilometrorra, 14 milioi biztan-





"Euskarari esker integratuta sentitzen naiz", Wen Chenek adierazi digunez.



Danna Ocamporen esanetan, "%100eko dirulaguntza jaso nuen Udaletik".

leko ingurunean. Duela 22 urtetik bizi da inguruotan, "gustura asko", azpimarratu digunez. Lehenbizi Donostian, Zarautzen tartetxo batean, egun Urnietan.

#### Euskaraz aritzeko ilusioa

Pedagogia ikasketak eginak ditu, enpresa-ikasketei lotutako masterra ere egin du. Hizkuntzekiko zaletasun nabarmena du. Bere sorterriko ama-hizkuntzarekin batera, inguruotako beste hainbat menderatzen ditu; egun, hemengo du, ordea, jomugan. Izan ere, beka baten bidez heldu zen Euskal Herrira, Txinan ikasketak amaitu ostean. Enpresa munduan aritu zen lanean. Eremu horretan, "beti euskaraz hitz egiten zuten. Nik gaztelaniaz. Egunen batean euskaraz hitz egiteko gai izateko ilusio handia nuen".

2020. urtea heldu zen, gutzientzako urte ahaztezina, covid19ak eragindako osasun krisialdiagatik. Txinara itzuli behar izan zuen gaixo zuen aita zaintzera. Euskara ikasteko ilusioa ez zitzaion apaldu une gogor horietan ere eta hantxe, baldintza gogor horietan hasi zen euskalduntzen, bere kabuz. "Euskara ikasten hasi nintzen. Egunero grama-

tika ikasten nuen neuk bakarrik lau orduz", oroitarazi du. Aita hil zitzaionean, Euskal Herrira itzuli zen, sorterrian hasitako trebakuntzari jarraipena ematera. Euskaltegian matrikulatu zen. "Orain arte asko ikasi eta oso ondo pasa dut irakaslearekin, ikaskideekin".

#### Euskarari esker, "integratuta"

Hemen, lan munduan murgiltzeko euskara lagungarri eta beharrezkotzat jotzen du. Bestalde, hizkuntzak "asko gustatzen zaizkit betidanik. Euskal kultura polita da". Ildo horretan, gaineratu digunez, kultura horretan murgiltzeko "hizkuntza erreminta garrantzitsua da". Bere motibazio mailaren nondik norakoez galdetuta, argi erantzun du, "helburu bat jartzen dudanean, saiatu eta saiatu jarraitzen dut". Bidelagun ditu, gustuko duen euskal historia, euskal

### "ILUSIOA EGITEN DIT BIKOTEAREN FAMILIAREKIN EUSKARAZ HITZ EGITEAK"

DANNA OCAMPO

dantzak, euskarazko irratia... Euskarari esker, "integratua sentitzen naiz hemen". Itxuragatik, segituan kanpotartzat jotzen dute eta euskaraz hasten denean, "harritura geratzen dira". Etorkizunean, bere sorterriko eta bizilekuko hizkuntzak, txinera eta euskara bateratu eta zerbait egiteko nahia du.

Danna Ocampok ere sorterrian ikasitakoan sakontzen segitu nahi du. Kolonbian jaioa, Donostiara heldu zen lehenbizi amaren aldeko senideen artera. Egungo bikotelaguna ezagutu eta Usurbil du bizitokia egun. "Erizaintzako laguntzailea naiz eta horri lotutako zerbait ikasi nahi nuen hemen. Lanbide Heziketako ziklo bat egin nuen laborategi klinikoari lotutakoa. Sektore publikoan lan egin nahi nuen", azaldu digu. Horrekin batera, bikotelagunaren familia euskalduna da eta "ilusioa

### "ORAIN ARTE ASKO IKASI ETA OSO ONDO PASA DUT IRAKASLEAREKIN ETA IKASKIDEEKIN"

WEN CHEN GUANGLI

egiten dit haiekin euskaraz hitz egin ahal izateak eta hemen bizita bertako hizkuntza ezagutzea oso ondo dago", batez ere, nabarmendu digun moduan, herrikide dituenekin harremana eduki ahal izateko.

#### Erabilera, erronka

Euskaltegian dabil euskalduntze lanetan. Zaila izan zaio ikasketa prozesua baina "pau-soz pauso, ezer ez jakitetik hitz batzuk ulertu eta elkarrizketetan erabiltzen hastea oso atsegingarria izan da". Bidelagunen garrantzia azpimarratu digu Ocampok. "Gustuko dut klaseetara joatea, irakasleekin hitz egitea eta klasekideekin saioak partekatzea, oso lagungarria da. Euskara ez genekien taldekideon artean konplizitate sortu da. Irakaslea beti egokitu izan da nire egoerara. Bikotelagunak ere asko lagundu dit etxeko lanekin".

Sare horren garrantzia nabarmendu du Dannak. Izan ere, "nik hemen amaren familia dut baina migrante asko bakarrik datoz". Euskara ikastea sare hori eraikitzen hasteko baliabidez ikusten du. Euskalduntze horretan, sare horri begira da Ocampo. "Elkarrizketak euskaraz egin ahal izatea, hortxe dut erronka".



*Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*



**Usurbil**



**Andoain**



**Lasarte-Oria**



**Urnieta**



**Hernani**



**Astigarraga**



**Eus  
ka  
ra  
ikasiz**

Erabiliz ikasi,  
ikasiz erabili



**Buruntzaldea  
euskaraz**

**Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!**

**ANDOAIN**

**Andoingo AEK**  
Plazaola, 2  
943 591 704  
andoain@aek.eus

**LASARTE-ORIA**

**Muntteri AEK Euskaltegia**  
Geltoki kalea, 17 behea  
607 625 233  
lasarte@aek.eus

**HERNANI**

**Hernaniko AEK**  
Larramendi, 11  
943 557 801 - 607 592 864  
Zilegi eskola: 663 043 314  
hernani@aek.eus

**USURBIL**

**Etumeta AEK Euskaltegia**  
Kale Nagusia, 43 behea  
607 609 379  
usurbil@aek.eus

**ASTIGARRAGA**

**Astigarragako AEK**  
Kultur etxea. Nagusia, 48  
607 610 687  
astigarraga@aek.eus

**Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1  
(anbulatorioaren gainean)  
943 361 621  
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal Euskaltegia**

Karobieta, 63  
(anbulatorio zaharra)  
943 331 896  
euskaltegi@hernani.eus

**URNIETA**

**Urnietako AEK**  
San Joan, 42 (Elkarteen etxea)  
662 338 747  
urnieta@aek.eus



euskara.buruntzaldea.eus/dirulaguntzak



Andoingo Udala  
Goiko plaza, 2/g  
20140 Andoain



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala  
Foru enparantza  
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala

Hernaniko Udala  
Gudarien plaza, 1  
20115 Hernani



LASARTE-ORIA

Lasarte-Oriako Udala  
Kale Nagusia, 22  
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala

Urnietako Udala  
San Juan plaza, 5  
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala  
Jose Martin Sagardia plaza  
20170 Usurbil



# Irailarekin batera, ohiko ordutegira itzulera

Udako ordutegian izan diren hainbat zerbitzu ohiko martxara itzuliko dira irailean barneratzearekin batera.

## Oiardo kiroldegia

Lanegunak: 07:00-22:00 (igerrilekua 21:45). Larunbatak: 09:00-21:30 (igerrilekua 21:15). Igande eta jai egunak: 09:00-13:30 (igerrilekua 13:15).  
Informazio gehiagorako:  
• 943 37 24 98  
• kirola@usurbil.eus

## Sutegi udal liburutegia

Ostiral honetara arte, irailaren 6ra arte astelehenetik ostiralera goizez zabalduko dute, 9:30-14:00 artean. Irailaren 9tik aurrera, goizez 10:00-13:00 artean eta arratsaldez, 16:00-19:30 artean irekiko dute. Larunbatetan urrira arte itxita izango da.

Informazio gehiago:  
• biblioteka@usurbil.eus  
• 943 360 693  
• 688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

## Kzgunea

Irailaren 30era arte 9:00-13:00 artean irekiko dute.

Informazio gehiagorako:  
• Kale Nagusia, 37  
• 943 023 684  
• tutor.usurbil@kzgunea.net

## Bus-taxia

Irailaren 2an ohiko ordutegira itzuli zen udal zerbitzu hau. Kaxkotik orduotan abiatuko da astelehenetik ostiralera: 07:30, 10:30, 13:30, 15:30 eta 19:00etan.

Informazio gehiagorako deitu 630 643 596 telefono zenbakira.

## Lurraldebus

Irailaren 1az geroztik 'neguko' ordutegia indarrean du berriz.

Informazio gehiagorako:  
• 900 300 340  
• lurraldebus.eus



Irailaren 1az geroztik 'neguko' ordutegia indarrean da berriz Lurraldebusen.

## Euskotren

Ekainaren 24tik indarrean du Euskotrenek udako ordutegia. Laster aldatuko du ordutegiz. Aurretik, aurreko igandean bezala, irailaren 8an, ohiko ordutegira zerbitzuez gain, 9:34an, 9:53an, 10:34an, 10:53an, 11:34an zerbitzu bereziak iragarri ditu EuskoTrenek Usurbildik Kontxako estropadetara.

Informazio gehiago:  
• euskotren.eus  
• 944 333 333

## Garbigunea

Atalluko zerbitzua ordutegi honetan irekiko dute irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 artean eta 16:00-18:20 artean. Larunbatetan, 09:00-12:50 artean. Igande eta jai-egunetan itxita. Irailaren 15etik aurrera: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 eta 16:00-18:50 artean zabalik; larunbatetan, 09:00-12:50 artean irekiko dute. Igande eta jai-egunetan itxita.



Baba beltz txikiari gorazarre egiten dion kofradiako kideak, Saizarren atarian.

## "Zenbat gose kendu duen baba txikiak"

Jaki gisa izandako garrantzia aitortu eta eskertu zuen abuztuaren 29ko Baba Beltz Txikiaren Egunean, haren aldeko kofradiak Saizar sagardotegian eginiko ospakizunetan. Hitzordu horretan, falta direnak oroitu eta antolatzaileak eskertu zituen Koldo Lizaso izendatu zuten kofradekide.

## Hamasei langabetu gehiago azkeneko bi hilabeteotan

Uztailean 212 ziren lanik gabe ziren herrikideak, maiatzean 196; tarte handiz, emakume langabetu gehiago (131) zituen udalerrri honek gizonezkoak baino (81). Aldiz, gizonezko gehiago (173 inguru) kontratatu zituzten, emakumezkoak baino (116). 289 izan ziren uztailean Usurbilen erregistraturiko kontratuak, haietatik gehienak, 172, aldi baterako hitzartu zituzten. Usurbildik kanpo, ekainean 2.860 izan ziren langabetuak, uztailean 2.868; 346 langabetu gehiago Gipuzkoan, guztira 28.552.

## Zenbait udal dirulaguntza deialdi martxan

Hasiz Hazi beka deialdiaren bidez, Kabiene elkarlangunean urtebeteko egonaldiak proiektuak garatzeko aukera eskaintzen die ekintzaileei. Bestalde, hutsik diren merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko laguntza lerroa ere badu Udalak, hasierako nahiz erosketa edo alokairu gastuei aurre egiteko. Bi deialdiotara eskabideak aurkezteko irailaren 30era arteko epea dute interesdunek. Oinarriak urtarailaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dituzue.



"Bederatzi garren izan nintzen aurreko txapelketan. Oso zaila izango da hori errepikatzea".

# "Duela bost urteko txapelketak aho-zapore ona utzi zidan"

ASIER AZPIROZ BERTSOLARIA, GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa datorren astean hasiko da. Duela bost urtekoan, finalaren atarian geratu zen Asier Azpiroz zubietarra. "Badakit txapelketa gutxi batzuk geratzen zaizkidalda eta horregatik ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz".

**Gipuzkoako bertsolari Txapelketaren bigarren fasea abiatzean da. Lehen fasea udaberrian jokatu zen eta saioetako bat Suetegin egin zen. Nola joan zen udaberriko sailkapen fasea? Jendeak erruz erantzun zuen, ezta?**

Oso ondo. Lehen fasea bi bueltatan egin zen. Lan asko suposatzen zuen eta ahalegin ekonomiko bat ere bai. Baina oso ondo joan ziren saio guztiak. Herri txikietara joateko apustua egin genuen eta oso gustura gaude, kanporaketa guztietan jende asko ibili zelako.

Maila aldetik, denetarik egon zen. Baziren anbizio bat agertu zutenak, prestatuta joan

zirenak; eta baziren beste batzuk, maila aldetik juxtu samar aritu zirenak. Txapelketen lehen fasean ohikoa izaten da.

Baina orohar, oso balorazio ona egin dugu Gipuzkoako Bertsozale elkartearen. Pandemia tarteko, bost urte ziren txapelketarik egiten ez zena. Eta badira 23 urteren bueltan dabil-tzan bertsolariak, oraindik txapelketan abestu ez dutenak. Aner Peritz, Aranatarrak... Plazaz plaza ari direnak baina txapelketa batean orain arte inoiz kantatu gabe zeudenak.

**Uxue Fernandez lehen fase horretan aritu zen eta bigarren faserako sailkatzea lortu du.**

**Urretxuarra da baina aspaldian errota dago Usurbilen.**

Nabarmena iruditzen zait Uxue Fernandezek egin duena. Lan ederra osatu du. Garai batean ibilizen txapelketan, utzia zuen, baina aurrean itzuli da berriro eta oso ondo ibili da, final-zortzirenetara sailkatu da (Uxuek

**"GIPUZKOAKO TXAPELKETAK ASTINDU HANDIA EMATEN DIO BERTSO EKOSISTEMARI"**

irailaren 22ko saioan abestuko du, Elgoibarko Herriko Antzokian). Askok pozten naiz.

**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa bi fasetan jokatzeko den lehen aldia da ala aurretik ere egin izan al da?**

Garai batean irailean hasten zen beti, final zortzirenetan, baina jende pila bat apuntatzen zen eta horregatik hartu zen bi fasetan antolatzeko erabakia.

Lehen fasean 20 saio jokatu dira eta Altzo edota Gabiria bezalako herrietara iristeko aukera izan dugu. Hemendik aurrera zaila izango da, areto handiagoak beharko direlako.

**Irailaren 14an hasi eta abenduaren 14ra bitarte 16 saio jokatu dira. Horrek ahalegin handi bat eskatuko du, eta logistika berezi bat, ezta?**

Final zortzirenak eta final laurdenak aretoetan egiten dira eta horiek ez dute hainbeste ahaleginik eskatzen. Final laurrekoetan ordea, 1.300, 1.500 pertsona elkartuko dira eta azpiegitura arloan adibidez, ahalegina handiagoa egin behar da. Kiroldegietan egingo dira, aulkiak ipini behar...

**Bertsozaleentzat, giroa pila-pilean izango da irailtik abendura.**

Bai, hala izaten da. Dena den, ni bertsozale bezala, ez naiz txapelketazalea. Joaten naiz eta nik ere parte hartzen dut. Eta aitortu behar da txapelketak astindu handia ematen diola bertso ekosistemari. Gai jartzaileak behar dira, epaileak behar dira... Lanketa bat egin behar da gai jartzaile talde bat osatzeko, eta epaileekin ere berdin. Militantzia handia eskatzen duten jarduerak dira. Bertso-eskolak ere martxan jartzen dira. Txapelketa garaian, jendea biltzen hasten da eta ikusten da bestelako martxa sortzen dela, bestela sortzen ez dena. Alde horretatik oso aberasgarria da. Eta jende askoren inplikazioa funtsezkoa da.



→ Nik bertsozale bezala ordea, beste kezka batzuk ditut. Saio inprobisatuen kultura galtzen ari garela uste dut. 60 urte atzera egingo bagenu, gauza asko aldrebesak ziren; tabernetan kantatzen zen eta oso giro maskulinoa zen, gizezkoak bakarrik aritzen ziren, baserri giroko tokietan bakarrik abesten zen... Baina aldi berean, horrek bazituen gauza batzuk salbatu zitezkeenak. Hasteko, bertsolari batzuk baziren nazio mailakoak zirenak, erdi profesionalak zirenak. Uztapide, Lasarte... Beste sail batean, bertsolari onak ere bazeuden. Eta azkenik, bazen beste sare handi bat, anonimoa, herri bakoitzean ia etxe bakoitzera iristen zena, urtebetetze festa bat zegoenean abesten zuena, edo herriko festetan abesten zuena. Orain bertsolari pila bat dago, baina denek nazio mailako logikarekin funtzionatzen dute. Noiz deituko zain gaude, bertsoan hasteko.

**Eta hor zerbait galdu da bidean.** Hori da. Ekainean, Beñat Gaztelumendi eta biok Kalezarren izan ginen abesten. Kristoren poza hartu nuen Harri Agirresarobe gurekin abestera animatu zelako. Bere garaian bertso-eskolan ibili zen baina utzia zuen. San Joanetako eskean, lehen bi etxeetan ez zuen kantatu, geroxeago animatu zen. Bera auzokoa da, eta guk kantatzea baino askoz hobea zen berak abestea, auzotarrak ezagutzen dituelako. Harri bertsoan hasi zenean jendeak asko estimatu zuen. Poz handia hartu nuen. Hori botatzen dut faltan. Lehenengo plaza txapelketa giroan egiten dugu baina gero gure auzoko festetan ez dugu kantatzen, edo ez zaigu okurritzen gustuko dugun giroan bertsoan hastea. Afari batean, adibidez. Horren falta sumatzen dut. Hau ez da bertso giroan bakarrik gertatzen. Etxeetan kantatzeko ohitura ere aldatuko zen. Euskal dantzetan aldiz, halako berpizkun-



Uda honetan Zubietako festetan eta Donostiako Aste Nagusian aritu da bertsoan.

de bat ikusi dut. Santixabeletan, Tapia eta Leturiaren kontzertuan izan nintzen eta jende pila bat ikusi nuen dantzan.

**Aurten, 50 urte bete dira umeei zuzenduriko lehen bertso-eskola sortu zenetik. Txapelketan bere garrantzia izango du efemeride honek.**

Ahalmen ikastolan sortu zen, Leintz bailaran. Guraso batzuk eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen hasi ziren eta hor hasi ziren Sarasuatarrak, Iñurrategitarrak, Arantzazu Loidi eta hauek guztiak.

Txapelketa hau horregatik hasi zen Eskoriatzan. Unai Gaztelumendik txapelketarako sortu duen irudiak ere, Gipuzkoako lehen-bertso eskolaren 50. urteurrena izan du gogoan.

**Gipuzkoako Bertsozale elkarteko lehendakaria zara. Ez da ardura samurra izango, ezta?**

**"BERTSOLARITZAK DAUKAN GAUZARIK ONENETAKOA DA ANTOLAKUNTZA AHALMEN HANDIA DUELA"**

Bertsozale elkarte oso gauza txikia da eta belaunaldi bakoitzean ardurak hartzea tokatzen zaie batzuei. Saroe Jauregik 12 urte egin zituen karguan. Euskal Herrikoan ere gu baino zahartxeagoak ari dira orain, Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe... Eta aurretik ere, Igor Elortza eta Maialen Lujanbio aritu ziren zeregin horietan. Bertsolari-tzak daukan gauzarik onenetakoa da antolakuntza ahalmen handia duela. Jarduna bera kolektiboa denez, horrek asko errazten du elkarte bat edukitzea. Azkenean, elkarte horrek baimentzen dizu eguneroko martxa eramateaz gain, hezkuntza egitasmoak bideratzea, txapelketak antolatzea, ikerkuntza egitasmoak sustatzea... Elkarte bizkarrezurra da.

Bertso munduan gabiltzanok badakigu gainera, guk geuk egiten ez badugu, zailagoa izango dela besteren batek egitea.

**Lehendakari gisa, bosgarren urtea egitera zoaz.**

2015. urtean zuzendaritza taldean sartzeko gonbitea egin zidaten eta 2020ko batzarrean, Saroi Jauregik lehendakaritza utzi zuenean, aurrerapauso bat eman genuen.

## "Kantatzen hasteko gogoz nago"

**48 bertsolari arituko dira, tartean zu zeu. Kantari hasteko gogotsu al zaude?**

Bai. Laugarren txapelketa izango da niretzat baina lasai samar hartu dutoraingoan. Eduki ditut txapelketak anbizio gehiagorekin, prestatzeko denbora gehiagorekin ere bai... Kontziente naiz txapelketa gutxi batzuk geratzen zaizkidala eta saiatuko naiz ahalik eta ondoen egiten. Erakargarria ere bada ze gazte asko datoz atzetik eta haiekin kantatzea ere polita da.

**Final zortzirenetan hasiko zara. Urrikan kantatuko duzu Azpeitian, Soreasan.**

Hori da. Ikusiko dugu. Duela bost urteko txapelketak aho-zapore ona utzi zidan. Bederatzigarren izan nintzen. Espero gabe, egia esan. Oso zaila izango da hori errepikatzea baina finalerdietara iristea oso polita litzateke, saio handiak izaten direlako. Eta horrelakotan abesteko aukera asko ez ditut izaten.

**Prestaketa lanekin hasi al zara?**

Unai eta Beñat Gaztelumendirekin batu naiz Añorga aldean. Eta Tolosaldean ere banabil; Beñat Iguaran, Oihane Iguaran, Unai Mendizabal eta hauekin.





Iñurri elkarteek egun solidarioa iragarri dute larunbat honetarako Usurbilen. ARGAZKIA: IRATXE ETXEANDIA.

# "Isilarazi diren gai tabuak plazaratu nahi ditugu"

## IÑURRI ELKARTEA

Iñurri elkarteak egun solidarioa antolatu du larunbatean. Julene Illarramendi Elexpurrekin batera elkartea sortutako Miren Cuerdo Izagirrek eskaini dizkigu xehetasunak.

### Zer da iñurri izatea?

Iñurrin nahi duguna da isilarazi diren gai tabuak plazaratu eta minbizia pasatzen duten pertsonen prozesuan dauden hutsuneak betetzea, perspektiba feministatik. Akonpainamendu ezberdin bat eskaintzen dugu ikusten ditugun hutsune horietatik abiatuta, informazio orokorra eskaintzeaz gain. Guk nahi duguna da presentzia ematea minbizia dutenei.

### Izan ere, sarritan esaten dena ez dator bat iñurrien egunerokoa-rekin.

Ez eta ezta ere askotan eskaintzen diren zerbitzuekin. Errealitate hau ezkutatzearna bezalako garai bateko kontzeptuak hor daude oraindik. Ematen den informazioa ere, hein handi batean, itxu-

rari lotutakoa da. Baina hutsune nahiko handi bat dago, adibidez, nutrizioaren, psikologiaren, sexologiaren... inguruan. Horregatik, ez gara identifikatuta sentitzen askotan hedabideetan, filmetan ematen den minbiziaren irudiarekin. Horrekin ere askok sufritzen du jendeak. Gauza horiek guztiak ikasten joan behar gara; adibidez, heriotzarekin dugun harremana aldatzen.

**"IÑURRIN ASKO HITZ EGITEN DUGU HERIOTZAZ, HARREMAN OSO ZUZENA DUGU HERIOTZAREKIN"**

### Heriotzarena da hausten ari zareten tabu kaltegarrietako bat.

Tabuek ez diete uzten bere bidea egiten. Badirudi halako prozesu bat ezkutuan eman behar dela edo besteen bide bera jarraitu behar dela eta ez da egia. Bakoitzak bere bidea egin behar du, hori oso garrantzitsua da. Bestalde, oso zabaldua dago, borroka irabazi beharrezko mezua. Hiltzen denak borroka galdu du? Hor-tik gure "hil arte bizi" aldarria.

**"ELKARREKIKO AKONPAINAMENDU ONENA HAIK EGITEN DUTE. ELKARTEA ZUBI BAT DA"**

Guri irakasten digute iñurriek bizitzen baita hiltzen ere. Guk Iñurrin asko hitz egiten dugu heriotzaz, egunerokotasunean harreman oso zuzena dugu heriotzarekin. Ikasketa handia da haiekin bizi duguna.

### Heriotza, seguru dugun gauza bakarra da bizitza honetan.

Bai eta horri bizkarra emanda bizi gara. Horrek sortzen ditu beldurrak, tabuak, hitz egiteko ezintasuna. Guk egin beharreko aldaketa dago. Guk nahi duguna da bakoitzak libreki aukeratzea bere bidea. Horretarako behar da informazioa eta falta da.

### Hor betetzen du Iñurrik bere espazioa.

Helburu nagusia minbizia gainditzea izaten da eta gorputza zein emozioak kolpatzen dituen tratamenduak jasotzea. Zure bizitza erabat alde batera geratzen da orohar. Prozesu horretan dagoenari bizi-raupena garrantzitsua iruditzen zaio baina baita bitarte horretan bizi ahal izatea ere, ze inork ez dizu ziurtatzen biziko zarenik, gaixotasuna gaindituko duzunik. Iñurrin ditugu emakume batzuk duela 15 urte izan zutenak minbizia eta orain ari direnak kanporatzen hau dena.

### Nola iristen dira Iñurrira kide berriak?

Osakidetza pazienteei emandako elkarteentzako zerrandan ez da ageri Iñurri. Toki ezberdin askotatik iristen zaizkigu, ahoz ahokoaren bidez, gure podcastak entzunda... Oso pertsona ezberdinak dira. Batzuk behar dute denbora gehiago. Batzuk komunitatean sartzen dira haien zalantzak, korapiloak askatu ahal izateko. Azkenean, elkarrekiko akonpainamendu onena haiek egiten dute. Elkartea zubi bat da.

### Elkar ulertze oso berezia sortzen da ezta?

Asko gustatzen zait ikustea ze aniztasun dagoen, ze ezber-



dinak diren ideologikoki, bizimodu aldetik, familia edo inguru aldetik eta aldi berean ze ondo elkar ulertzen diren. Esan izan digute orain arte inork ez diela hain ondo ulertu, ez dutela izan sare bat ulertua sentiarazi diena eta libreki hitz egin ahal izan dutena.

### Honek ere erakusten du zenbat etxeko lan ditugun egiteke.

Oxala ez balira existituko halako elkarteak, horrek esan nahiko bailuke lan hori gizarteak betetzen duela, erakunde publikoek. Baina erabateko baliabide falta dago. Ez da benetan entzuten, prozesu horretan daudenek zer behar duten. Iruditzen zait askotan hori falta zaigula orokorrean. Entzute aktibo hori behar da. Iñurrin espazio bat ematen da lasai hitz egiteko. Badakite ez ditugula epaituko.

### Larunbateko Iñurri Egunean plazaratu nahiko duzue hau guztia. Zergatik hautatu duzue Usurbil ekimen solidario honetarako?

Iñurri Egun hau antolatatu dugu, aspalditik, nahi genuelako halako topaketa bat egin. Asko gustatzen zaigu minbizia dutenak, ez dutenak... aniztasun hori elkartzea. Horrez gain, abuztuan bost urte bete ditugu eta goaz lokala irekitzera Usurbilen. Iñurri sorreratik izan da Usurbilgoa, Julene sortzailea herritarra da. Egia esan, beti erraztasun handia izan dugu Usurbilen gauzak antolatzeko garaian.

### Usurbilen baduzue iñurri taldea ere?

Baditugu. Topera lanean, gainera, larunbatean ere bertan izango dira boluntario gisa. Bilera guztiak ere Potxoenean egin ditugu. Usurbil gure etxea



Iñurri elkartearen topaketetako bat. ARGAZKIA: IRATXE ETXEANDIA.

izan da. Oso gustura sentitu gara beti hemen lanean. Lokalarena planteatu genuenean non ireki, Usurbilen izan behar zuela argi genuen. Non ireki dugu bestela?

### Zer nolako erabilera eman nahi diozue egoitzari?

Kalean egon nahi genuen, gure atea irekita egotea, nahi zuenak sar zedin. Irekia izatea nahi genuen. Espazio hori egokitzen ari gara. Horregatik antolatu dugu Iñurri Eguna ere, egun solidario gisa, laguntzarako, obra dezentekoa egin behar izan dugulako. Ekintzak horregatik izango dira ordainpekoak. Helburua da, espazio

**"EZ DA BENETAN ENTZUTEN, PROZESU HORRETAN DAUDENEK ZER BEHAR DUTEN"**

multidiziplinar bat izatea. Gure langilea egongo da bertan. Yoga onkologikoa, formakuntza, hitzaldiak... eskaini nahi ditugu. Batez ere, harrera hori eskaintzeko espazio bat izatea nahi dugu. Helburu bezala jarri dugu datorren urtarrilean zabaltzea.

### Zertarako baliatu nahi duzue Iñurri Egun hau?

Elkartzeko egun bat izatea nahi dugu, informazioa eta formakuntza eskaintzeko, baita ondo pasatzeko ere.

### Bost urte bete ditu Iñurrik abuztu honetan. Atzera begira jarrita, emankorra izan da ezta zuen

**"HARRERA ESPAZIOA IZATEA NAHI DUGU. HELBURU DUGU URTARRILEAN ZABALTZEA"**

### elkarteak sorreratik jorratu duen bidea?

Guk diogu askotan gogaikarriak garela pixka bat, eulien antzera. Azkenean elkarre bat ez bada halakoa, ezin da aldaketarik eragin. Iñurritik gai asko plazaratzen ditugu jendartearentzat deserosoak direnak. Elkarre hau hazten ari da oso azkar. Ez genuen espero halako bilakaera izango zuenik. Hau taberna bateko terraza bateko mahai batean sortu zen. Eraldaketa handia izan du. Bost urteotan ezin izan dugu frenatu, inguruak lagundu duelako, denak bat goazelako bide horretan. Gauza piloia lortu dira. Jende dezentari laguntzen ari garen sentipena dugu. Balantzea positiboa da orokorrean nahiz eta gauza asko dauden lortzeko eta hobetzeko. Politikak asko aldatu behar dira. Asko dago aldatzeko pertsonengan ere eta nola ikusten dugun, adibidez, gaixotasun bat edo beste gai tabu batzuk.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
· Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL



# Kirol ikastaro eskaintza zabala ikasturte berrirako

Asteotan matrikulatu ahaliko da iragarri diren ikastaro hauetan guztietan.

## Soinketa erritmikoa

Ikastarook iragarri dituzte: HH5-LH2 artekoentzat asteazkenetan, 16:45-18:15 artean; LH3-LH4 artekoentzat asteartean, 16:45-18:15 artean. Tximeleta taldearen eskaintzan bideotatik matrikulatu ahaliko da: tximeleta.eus / 943 11 63 42.

## Judo

Irailaren 9tik aurrera, astelehen eta asteazkenetan, 17:00-18:00 artean, Oiardo kiroldegira sartzeko aldapan aurkituko dituzue bilgune horretako kideak argibideak eman nahiz kide berrien izen-emateak bideratzen. Helburuok lan egiten dute: balio positiboak indartzea; indarkeriazko eta diskriminaziozko jarrerak eta portaerak zuzentzea; gurasoak sentsibilizatzea eta pentsa-

moldea aldatzearen alde inplikatzeko, berdintasunezkoak edo indarkeriazkoak ez diren jokabideak atzematen diren kasuetan; judo balioak transmititzeko tresna gisa nabarmentzea.

## Oiardo kiroldegia

Irailaren 16ra arte eman ahaliko da izena kiroldegiko ikastaroetan. Bi berrikuntza iragarri dituzte. "Batetik, "+1" izendatutako ikastaroak: egun bakarrekoak dira, beste ikastaro bati gehitzeko aukerarekin, edo hori bakarrik egiteko.

Bestetik, zenbait ikastaroren ordutegia moldatu dute, 07:10etan eta 15:00etan jarrita, lanarekin uztargarri izaten laguntzeko", Udaletik jakinarazi dutenez. Izen-emate kopuruak plazena gaundituko balu, zozketa irailaren 17an



Eskaintza zabala iragarri du Oiardo kiroldegia denboraldi berri honetarako.

gingo da. Honatx denboraldi berrirako osatu duten eskaintza:

### Aretoko jarduerak

- 6-18 urte artekoentzat: zumba, eskalada, konbinatua (igeriketa + spinning).
- 16 urtetik gorakoentzat: spinning, pilates osasuna, hastapena eta hoberkuntza, 3. adina, mantenu gimnasia, zumba, hit, hipopilates hipopresiboak, konbinatua (spinning + tonifikazioa), konbinatua (spinning + igeriketa), yoga, jarduerak

fisiko egokitua, eskalada, total training, erditze ondorengo ikastaroa.

### Uretako jarduerak

- 0-16 urte artekoentzat.
- 16 urtetik gorakoentzat: haurdunak (pilates + ur jarduerak), aquagym, aquagym +1, hastapena, hoberkuntza, errendimendua, konbinatua (aquagym + igeriketa), igeriketa +1.

Izen-ematea esteka honetan: <https://forms.gle/r1Cq-4fEeLrQxgWF96>

## Mont Blancen hildako mendizale batek harreman estua zuen Usurbilekin

Abuztuaren 21ean bi mendizale hil ziren Frantziako Alpeetan, Mont Blanc du Tacul mendian. Markel Galdos oiartzuara eta Mikel Etzezarraga, Lezon bizi zena eta Usurbilekin harreman estua zuena.



Mikel Etzezarragak lagun ugari zituen Usurbilen. [INSTAGRAM](#)

### "Erronkazalea eta langilea"

Usurbilgo bere lagunek erronkazale, metodiko eta langile bezala definitu zuten.

## Udarregin ikasitakoa

Mikel Etzezarraga Lehen Hezkuntzan iritsi zen Donostiatik gure artera. Udarregi ikastolan hainbat urte egin zituen eta unibertsitatera joateko garai horren bueltan, Lezora joan zen amarekin batera. Hala ere, maiz etortzen zen Usurbilera.

## Joxe Ramon Zubimendi 'Zubieta, mila urteko herria' liburuaren egilea zendu da

Abuztuaren 8an, Joxe Ramon Zubimendi irakasle eta itzulzaileazenduzela jakin genuen. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1996an eta Jagonet zerbitzuaren ardura zuen. Usurbilen sortua, 71 urterekin hil zen.

Berria egunkariko kronikaren arabera, "hedabideetan euskararen zuzentasuna eta egokiera lantzeko hainbat lan bideratu zituen, 1980ko hamarralditik aurrera". Hainbat idazlan ere plazaratu zituen. Aipagarrienak, 'Idazkera-liburua', 1993an Pello Esnalekin



2000. urtean plazaratu zuen liburua NOAUA'ren eskutik. [EUSKALTZAINDIA](#)

batera idatzitakoa, eta 'Zubieta, mila urteko herria', NOAUA Kultur Elkarteak 2000. urtean plazaratu zuena.



## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 31m<sup>2</sup> lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta beza-la erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647742588

Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari bila. Garrantzitsua esperientzia izatea. 670654272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

## BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Interesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

Osteguna, 05	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 06	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 07	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 08	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 09	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Astearte, 10	GANDARIAS-URIBE Inigo Loliola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 11	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 12	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 13	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 14	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 15	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURI ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## ZORION-AGURRAK



**Zorionak Areia eta June!** Areiak irailaren 9an 10 urte eta June hilaren 11n 14 urte beteko dituzte. Egun zoriontsuak bizi! Ederki ospatuko ditugu zuen urtebetetzeak! Zorionak eta muxu asko biontzat etxekoan partez!

## HILDAKOAK



**Mikel Etxezarraga Hernandez**  
Abuztuaren 22an hil zen, 26 urterekin



**Juan Jose Eizagirre Agirre**  
92 urterekin hil zen.

## HILDAKOAK



**Jose Juan Iraola Seguro**  
Abuztuaren 15ean hil zen, 90 urterekin



**Maria Dolores Ayerdi Beobide**  
Abuztuaren 5ean hil zen, 95 urterekin



**Olimpo Lazaro Silva Rodriguez**  
Uztailaren 30ean hil zen, 76 urterekin



**Herminia Sanchez Casas**  
Uztailaren 27an hil zen, 93 urterekin



**Jose Mari Etxarri Elizondo**  
Uztailaren 15ean hil zen, 69 urterekin



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTEGUNA 05

## AGINAGA Uraren festa

Udarari agur esan eta ikasturte berriari hasiera emateko. Uretako puzgarriak eta jolasak.

Antolatzailea: Antxomolantxa.

16:00 Aginagan.

## LARUNBATA 07

## USURBIL Lehen Iñurri Eguna

Izan Iñurri elkarteak egun osoko egitaraua prestatu du.

Sarrerak salgai eta informazio guztia, izaninurri.eus/inurri\_eguna\_2024/ atarian.

Egun osoko ospakizuna.

## IGANDEA 08

## SANTUENEA Ikasturte hasierako festa eta Ttipikarekin dantzaldia

Ospakizuna eguerdiko 12:30ean hasiko da eta Santueneko eskubaloi pistan egingo da (euriarekin, frontoian).

12:30 Trebetasun jolasak.

14:00 Bazkaria (norberak ekarria).


Postrea antolatzaileen kontura.

17:00 Ttipikarekin dantzaldia.

Bazkarirako izen ematea: usurbilkultura.eus (irailaren 5era arte egongo da zabalik).

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte. Laguntzailea: Udala.

12:30 Santueneko eskubaloi pistan.



Larunbat arratsaldeko kontzertuan Elektropottote, Idoia Asurmendi, Eñaut Elorrieta (irudian) eta Rukula arituko dira.

## Iñurri Eguna

Iñurri elkarteak tailerrak, hitzaldiak eta kontzertuak iragarri ditu larunbat honetarako.

## Irailak 7, larunbata

- 9:30-11:30 Yoga eta gosaria frontoian. Prezioa: 18 euro.
- 11:30-13:30 Serigrafia tailerra Potxoenerako sotoan. "Iñurri egunerako diseinatutako lamina bat serigrafiatuko dugu Beñat Iraolaren laguntzaz". Prezioa: 16 euro.
- 11:30-13:00 Belarritako pertsonalizatuak sortzeko tailerra Potxoenerako proiektore gelan. "Tailer honetan buztin polimerikoz egindako bi belarritako pare egiteko aukera izango dugu".

Prezioa: 22 euro.

- Hitzaldiak: 'Heriotza eta dolua'; 'Zoru pelbikoa eta sexualitatea'; 'Feminismoa'.
- 14:00 Bazkaria frontoian. Menua: Pasta entsalada, albondigak, gazta tarta. Menu beganoa eskatzeko aukera egongo da.
- 17:00 Olatz Mercaderren monologoa frontoian.
- 17:30 Kontzertuak frontoian: 17:30 Elektropottote. 18:00 Idoia Asurmendi. 19:00 Eñaut Elorrieta. 20:00 Rukula. Prezioa: 12 euro.

## Informazioa, sarrerak:

izaninurri.eus/inurri\_eguna\_2024/ atarian datoz xehe-tasun guztiak.

## 'Usurbil Museo Irekia', bisita gidatua

Jose Luis Zumetaren murala ikusgarria eta txoriak; Remigio Mendibururen 'Udarregiri omenaldia' eskultura; Irantzu Lekue, Judas Arrieta eta Axpiren muralak, ... Aditu baten laguntzaz ezagutu ahalko dituzu artelan hauek guztiak ordubeteko bisita gidatuan.

## Irailak 14 larunbata

- Irteera, 12:00etan Sutegitik.
- Aurrez eman behar da izena turismoa@650usurbilbizi.eus eposta helbidera idatziz.

## Santueneko jaiak, begibistan

Bi aste barru ospatuko dituzte auzoko jaiak. Irailaren 20tik 22ra hortaz, haur zein helduentzako hamai-ka ekitaldi antolatuko ditu Santueneko Jai Batzordeak.

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com  
**600 024 825**

**USURBIL DÖNER KEBAB**  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

**ARRANDEGIA PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTA PAX 7, 650 31 31 91

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak, ...  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



# BISITA GIDATU BERRIAK USURBILEN



IZEN-EMATEA



650usurbilbizi.eus




## MUSEO IREKIA

Usurbilgo kaleetan dauden artelan garaikideak azaltzen dira. Tradizioa eta modernitatea uztartzen dira ibilbide honetan, Jose Luis Zumeta, Remigio Mendiburu, Irantzu Lekue, eta abarren piezen bitartez.



## ZAINTZA

Usurbilgo zaintza ekosistemaren bi gune gertutik ezagutzeko aukera: Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa, eta Egurtzegi, zaintzadun etxebizitzaren azuzena.



## ZERO ZABOR


Usurbilgo hondakinen kudeaketa eredugarria ezagutzeko aukera: atez ateko bilketa, auzo-konpostagailuak eta errefusa tratatzeko modu berritzaileak.



## SALBATORE ELIZAREN ONDAREA

Elizaren historia eta bere kultur ondarea ezagutzeko bisita, besteak beste, organo eta erloju entzutetsuak. Kanpandorrera ere igoko da bisita gidatua. Adi: ez da bisita irisgarria.

## Jarrai iezaguzu sare sozialetan



www.noaua.eus



@noauaastekaria



@noaua



Noaua Aldizkaria



@noauatb



# OSASUN GIDA

## MABIOK FISIOTERAPIA

Ekografietan, terapia inbasiboetan eta  
eskuako terapietan adituak



Alperro Buru kalea 1, BSB (20170)  
T. 608 671 925 / 943 372 669  
Sare sozialak: mabiok\_fisioterapia  
Webgunea: mabiokfisioterapia.com

## Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*sustraitu osasuna oinetatik*

## Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA



Fisioterapia Pilates terapeutikoa

Osteopatia Psikologia

Haurdunaldia Zoru pelbikoa

943 53 92 66  
623 46 26 58

irati.ibargoien@gmail.com

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

@irati\_ibargoien\_fisioterapia www.iratibargoien.com



## zenta

### ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin  
hitzarmena

[www.zenta.es](http://www.zenta.es)

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



## USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO,  
URRUTIKO  
ETA GERTUKO  
BIGARREN LENTE  
PAREA DOAN!

# 2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)

## Bizi-Sena

Neuroenergetika terapiak  
nervio sistema orekan jartzea  
laguntzen du, lasaitasuna lortuz  
gure buirmuñean eta  
gorputzean

[www.bizisena.es](http://www.bizisena.es)  
Karolina Lekuona info@bizisena.es  
674 804 913 Santuenea 26 3<sup>a</sup> Eskubi (Usurbil)

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatiakoak
- Maisu formulak

## Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO

747 486 835

[publizitatea@noaua.es](mailto:publizitatea@noaua.es)